

Donostia, 2017ko maiatzaren 19a

IDAZKARI NAGUSIARI

INGURUMEN SAILAREN ZEREGINARI BURUZKO KONTROL MOZIOA

Loïc Alejandro jaunak, Irabazi Donostia taldeko zinegotziak, Udaltzaren Araudi Organikoaren 98. artikuluan oinarrituta, Lourdes Txiki eremuko zuhaitz mozketari buruzko KONTROL MOZIO hau aurkeztu du, ingurumenaren ikuspuntua abiapuntu hartuta, hil honetan Lurraldearen Garapen eta Planifikazio Batzordean aurkeztutako interpelazioaren ondorioz.

JUSTIFIKAZIOA

Lourdes Txiki eremuan zuhaitzak moztu dira, eta horrek atentzioa ematen du, aintzat hartuta eremu hori babes bereziko landa eremu gisa sailkatuta dagoela Hiri Antolamenduko Plan Orokorrean.

Babestutako eremu naturala denez, kezkatzekoa da Ingurumen Sailak mozketaren proiektuaren berri ez duela izan hori gauzatu aurretik, eta, beraz, ezin izan du proiektuaren gaineko iritzirik eman. Espedientean ez da Ingurumen Sailaren txostenik jasotzen.

Pagola enpresaren txostenak (Ekintza ikastetxean zuhaitzak, adarrak edo lurzorua erortzeko arriskuak aztertzen ditu, eta jarduketaren eragilea da) ez du aztertzen arazoa konpontzeko zer teknika erabil litezkeen, eta aukera bakar batean zentratzen da: ikastetxearekin muga egiten duen 50 metroko zerrenda batean dauden zuhaitzak kentzea.

Mozketa hori gauzatzeko, enpresak bideak ireki ditu 50 metroko zerrenda horretarako sarbidea izateko, zuhaitz handi eta hostotsuen baso misto batek hartzen zuen 2 hektareatik gorako espazio batean. Jarduketaren ondorioz, lurzorua biziki eraldatu da; horrek higadura handia sortuko du, eta, ondorioz, luiziak gertatzeko arrisku handiagoa.

Ingurumen Sailari iritzia eskatu izan balitzaio, basoa hobeto babestuko luketen bestelako irtenbide batzuk (sare metalikoa, hesi fisikoa, jolastokitik ale arriskutsuak kentzea pistarik ireki gabe, etab.) eta/edo jasangarriagoak aztertuko ziratekeen zailtasun jakin bat konpontzeko (50 metroko zerrenda) eta oinarritzko arazoa ez okerragotzeko (lurzoruaren egonkortasunik eza areagotzea).

Zoritxarrez, Ingurumen Sailak ez du ahotsik hirigintzako auzietan.

Hori da betiko joera: osoko bilkurara ingurumenean edo jasangarritasunean eragina duten hirigintzako auzi asko eramaten dira onesteko, baina, horiei dagokienez, ez daukagu ingurumenean edo jasangarritasunean espezializatutako teknikari baten iritzirik.

Ingurumen Saileko txostenak nahitaezkoak ez badira ere, gure ustez beharrezkoa da, era batean edo bestean, sail horren iritzi argudiatua jasotzea proiektu batek ingurumenari edo jasangarritasunari eragingo badio. Garrantzitsua da proiektu batek zer eragin eta ondorio izan ditzakeen jakitea, etorkizunean sor daitezkeen arazoak ekidin ahal izateko eta oinarritutako erabaki bat hartzeko.

Batzordean bi interpelazio egin genituen Lourdes Txiki eremuko zuhaitz mozketari buruz, bi ikuspuntutatik: hirigintzako ikuspuntutik eta ingurumeneko ikuspuntutik. Egitasmo bana aurkeztu genien bi zinegotzi ordezkari, auziaren bi aldeak azpimarratzeko eta, horrela, Ingurumeneko ikuspuntua banan-banan ezagutu ahal izateko.

Zoritxarrez, Ekologiako zinegotzi ordezkaria ez zen aurkeztu ere egin gure galderei erantzuteko, aukera bazuen ere (izan ere, minutu batzuk geroago aurkeztu zen beste galdera batzuei erantzuteko). Horrenbestez, Hirigintzako zinegotzi ordezkariak erantzun zien gure galderei, eta orduan ere ez genuen arrakasta handirik izan:

“Ingurumen Sailak zergatik ez du mozketaren proiektuaren berri izan?” Ez genuen erantzunik jaso.

“Zer iritzi du Ingurumen Sailak gertatutakoari buruz?” Ez genuen erantzunik jaso.

“Zer proposatzen du zinegotzi ordezkariak ingurumenaren kontrako eraso hau berriro gerta ez dadin?” Ez genuen erantzunik jaso.

Horrek guztiak erakusten du udal honetan, edo behintzat gobernu honetan, ez duela askorik edo batere inporta Ingurumen Sailak hirigintzako auziei buruz duen iritzia. Gure ustez, hori zuzendu beharra dago, guztion onerako eta espedienteen aberastasunerako.

Hori dela eta, honako kontrol mozio hau aurkezten dugu:

KONTROL MOZIOA

1. Donostiako Udalbatzak udal Gobernuari eskatzen dio hirigintzako espedienteen artean Ingurumen Sailaren txosten bat gehitzeko, proiektuak ingurumenean edo jasangarritasunean eragina duenean.

Izpta.: Loïc Alejandro,
Irabazi Donostia taldeko zinegotzia.